

laburrean

■ **Donostiako Ikasle Abertzaleak taldeak mobilizazioetara deitu du gaurko, «oinarri demokratikoak» eskatzeko**

DONOSTIAKO Ikasle Abertzaleak taldeak mobilizazio egunera deitu du gaurko, ikasleek azken ikasturtean «mehatxuak, kanporaketak, espedienteak eta abar» jasan dituztela salatzeko. «Ikasleok nazkaturik gaude, eta, horregatik, oinarri demokratikoak orain nahi eta behar ditugu», jakinarazi zuten atzo ohar baten bidez. Zurriolako ikastetxean atzo pankarta bat jartzeagatik hiru ikasle egun eta erdirako kaleratu zituztela salatu zuen IAK, eta gaur beste berrogei ikasle kanporatuko dituztela 'Gose greban' zioen pegatina eramateagatik. Gaur goizean ekimenak antolatu dituzte ikastetxetan eta 16:30etan kontzentrazioa egingo dute Zurriolakoan.

■ **Jaurlaritzak FME entxufeak eta izenik gabeko luzagarri bat atera ditu merkatutik, segurtasun neurriak ez betetzeagatik**

FME etxeko entxufe bat eta izenik gabeko luzagarri bat erretiratu zituen atzo Eusko Jaurlaritzako Kontsumo zuzendaritzak merkatutik, ez dituztelako segurtasun baldintzak betetzen. Entxufeak —5.021 erreferentziak— eta luzagarriak —GS-CE 10-16/250 larakoa— gaizki eginda daudela adierazi zuen Kontsumo zuzendaritzak, erresistentzia txikiegia diotelako beroari eta zirkuitu laburrean babesik ez dutelako. 240 ale erretiratu ditu Jaurlaritzak. Europako Batasunak 21 gai elektriko arriskutsu atzeman ditu eta Jaurlaritzak erretiratuak horietakoak dira. Bestetik, beste ehun gai elektriko aztertu ditu Kontsumo zuzendaritzak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko 78 saltokitan. %33k irregulartasunak dituztela dio.

■ **Donostiako EHk Udaleko zenbait langileri espedientea irekitzeko eskatu du, ez dutelako euskara plana betetzen**

EH Euskal Herritarrok-eko Donostiako zinegotzi taldeak Udaleko zenbait langileri espediente informatiboa irekitzeko eskatu zuen atzo, ez dutelako Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Normalizazio Plana betetzen. Udaleko langile askok euskara ikastaroak egin eta hizkuntz eskakizuna betetzen dutela esan zuen EH eta beste batzuk lortzeko bidean direla, baina zenbait lanpostutako beharginek ez dutela «serio» hartu hizkuntz eskakizuna betetzeko epea.

■ **Umandiren 'Asmo Iztegia' aurkeztu dute**

ANDONI URRESTARAZU *Umandi* zenaren *Asmo Iztegia* argitalpena aurkeztu zuten atzo Gasteizen Maria Terese Urrestarazu arreba, Xabier Aizpurua Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta Alberto Agirreazaldegi UZEIko buruak. Garrantzi handiko lana da, euskal hitzak esanahiaren arabera hurrenkeran jartzen dituen lehendabiziko hiztegia baita. Hiztegiak 3.226 orrialde ditu, bi liburukitan banaturik, eta honako hiru zatia ditu: hiztegi ideologikoa, euskara-euskara hiztegia eta esaerak nahiz atsotitzak bildu dituenak.



JOSU ETXEBARRIOSTE

■ **Biluzik material militarreko enpresa baten aurka.**

Kakitza talde antimilitaristako hainbat gazte biluztu ziren eta militarrez jantzitako lagunek pintura gorri busti zituzten, Barakaldoko Udalaren aurrean. Hegazkin militarrentzat osagaiak egiten dituen ITP enpresa Udalerrian kokatzearen aurka protestatu zuten antimilitaristek. «Gure gizartean militarismoa sustatzeko bideratzen diren dirutza eta baliabide humano eta teknologiko izugarriak» salatu zituzten Kakitzatekoek.



MANUEL BRAGIMO RUIZ / EFE

Pretila jo zuen bi bilbotarren automobilak eta, argazkian ikus daitekeen moduan, kolpea izugarria izan zen. Bien heriotza ekarri zuen; aurrez aurre, hilotz bat.

Palentzian jazotako auto istripu batean bi bilbotar hil dira

Atzo goizean jazo zen ezbeharra, Magaz Pisuerga herri parean

Europa Press / Palentzia

haiei laguntzera bertaratu zirenek.

Atzo goizean, 11:50 aldera, auto istripu larria jazo zen Palentzia probintziako Magaz de Pisuerga udalerrian (Espainia). Ondorioz, bilboko bi gizaseme hil ziren: Gonzalo Roa Sobrado eta Jose de Arriba Soto. Lehenak 59 urte zituen, bigarrenak 57.

■ **Villabonan, hiru gazte zauritu dira**

Goizaldeko 03:00etan, berriz, N-1 errepidean auto istripu bat jazo zen, Villabona parean. Ibilgailu batek kamioi bat atzetik jo zuen eta, ondorioz, auto barruan zihozten hiru gazte bertan harrapatuta geratu ziren, irten ezinik.

Suhiltzaileen lagutza behar izan zuten ateratzeko, eta ondoren, zaurituta, hainbat erietxetara eramane zituzten.

EZBEHARRA jazo zen tokira —zehazki, Burgos eta Portugal arteko errepideko 78. kilometroan gertatu zen— berehala bertaratu ziren Guardia Zibilak.

Ondoren aditzera eman zuten, bi bilbotarrak auto berean zihozten, Lugon matrikulatutako Opel Corsa

batean. Antza, gidari Gonzalo Roa zihozan, eta autoaren kontrola galdu zuen, errepi-detik irten egin baitzen ibilgailua. Hain zuzen ere, bidearen ezkerretik irten eta petril bat jo zuten. Kolpe handia izan zen, eta aipatutako bi lagunak salbatzeko ezin izan zuten deus egin

2000 EKAINA 10-11 TOLOSA-GIPUZKOA

VI IBILGAILU KLASIKOAK NAZIOARTEKO ERAKUSKETA

Berrikuntza
Mende hasierako auto klasikoaren erakusketa

Stand-ak erakusketak, auto zahar eta motoen salmenta

Jarduerak:
Larunbata 10 arratsaldeko 6etan, auto klasikoaren ibilaldia.

Non: Tolosan, San Estebango Ferialekuan.

Ordutegia: 9:00 - 13:30
15:30 - 20:00

Tolosako Udala